



Puntu interesgarriak

Puntos de interés

A Ereñotzu. Mendiz eta naturaz inguratua, auzo honetan interes handiko hainbat eraikuntza ikus ditzakegu: Txilibita baserria, eta San Antonio parrokia adibidez.

Ereñotzu. Rodeado de montes y naturaleza, podemos encontrar en su núcleo edificios singulares como son el caserío de Txilibita y la Parroquia de San Antonio.



Natura errespetatu ezazu, denon ondarea da

Respetar la naturaleza, es patrimonio de todos

B Artamugarriak. Artamugarriak Urumeako bailaran hain ohikoak diren saroen erdialdea adierazten duten harriak dira. Saroe edo saroi bezala ere ezagunak ziren gune hauen jatorria oraindik ere zalantzakoa den arren, aintzina, basogintza-guneen baitan esparru "libre" garrantzitsu bat zirakeela uste da. Ibilbide honen gertu aurki dezakegun artamugarria Larreagaingoa da: hala ere ibilbidetik nahiko aldentuta dago eta aurkitzeko zaila den gune batean.

Mojones de seles. Los "artamugarriak" son unos mojones de piedra muy utilizados en el valle del Urumea y que indicaban concretamente el centro del sel ó recinto. El origen de éstos seles es todavía incierto. Sin embargo se piensa que antiguamente delimitaban un recinto "libre" dentro de un entorno de explotación del bosque. Existe uno de ellos en las proximidades de la sidrería Larregain, pero está apartado del camino y en sitio de difícil acceso.



Hernaniko

Ibilbide sarea

Red de senderos de Hernani



4,1 km. 1:15 h. 240 m.

Mendeetan zehar Urumea ibaia oso garrantzitsua izan da hernaniar askorentzat. Honela, uholde lautada eta ibaierretako lurretaz baliatuz, Ereñotzu eta Fagollaga bezalako auzoak eraiki dira Urumearen bazterrean. Ibilbide honek auzo hauetako biztanleei aisiarako bide bat eskaintzeaz gain, inguruetan dauden garrantzi historiko, kultural eta naturaleko guneak ezagutzera emateko aukera ematen du.

El río Urumea ha sido muy importante para los habitantes de Hernani durante siglos. Bien en sus riberas o bien aprovechando zonas de anegamiento, se han levantado barrios como el de Ereñotzu o Fagollaga. Este recorrido además de ofrecer a sus habitantes un modo de esparcimiento y disfrute, nos brinda la oportunidad de dar a conocer el valor histórico, cultural y naturalístico de la zona.

Hernaniko ibilbide sarea osatzen duten ibilbideak:

- | | | |
|----|-----------------|-------------------|
| 1 | Santa Barbara | HIU-1 |
| 2 | Sagardotegiak | HIU-2 |
| 3 | Oindiri bira | HIU-3 |
| 4 | Urruzuno | HIU-4 |
| 5 | Epele | PR-Gi 1002 |
| 6 | Ereñotzu | SL-Gi 1002 |
| 7 | Oberan | PR-Gi 1001 |
| 8 | Larregain | |
| 9 | Usokori bira | |
| 10 | Latse | |
| 11 | Aparrain | |

Informazio praktikoa

Gaur egun ibilbide hau, bere osotasunean, marka txuri-berdez seinalatuta dago. SL-Gi 1002 izenarekin balizatuta dago.

Información práctica

Este recorrido está actualmente bien balizado en su totalidad con marcas blanco-verdes y está identificado como SL-Gi 1002.

D Fagollagako aingura fabrika. XVIII. mendean Fagollagako aingura fabrika izan zenaren arrasto bakarrik egun Fagollaga auzoan errepidearen alboan dauden etxebizitza luzangak dira. Fagollagako aingura fabrika XVIII. mendean erregearekin eginiko pakto baten ondorioz eraiki zen eta bertan lau urtetan 20.000 kintal aingura ekoiztu ziren (ia mila tona).

Fábrica de anclas de Fagollaga. Los únicos vestigios de lo que en el siglo XVIII fuera la antigua fábrica de anclas de Fagollaga lo constituyen hoy en día unos edificios alargados que encontramos junto a la carretera. Esta fábrica se levantó por un pacto con el rey de la época y en ella se produjeron, en unos cuatro años, anclas que sumaban entre todas un peso de unos 20.000 quintales (casi mil toneladas).



E Fagollagako zuba. Fagollagako zuba Euskal Kultur Ondarearen barruan Monumentu bezala dago izendaturik. Zubiak XVIII. mendeko datazioa du.

Puente de Fagollaga. El puente de Fagollaga, que data del siglo XVIII, está catalogado como Monumento dentro del Patrimonio Cultural Vasco.



F Urumea ibaia eta Fagollagako uharka. 1940an industria erreka ertzean kokatzen hasi zen heinean Urumea ibaira isurtzen zituzten hondakinak direla eta, ibaiaren ur-kalitatea asko jaitsi zen eta ez zegoen ia bizirik bertan. 1970etik aurrera, aldiz, ur araztegiaren agertzearekin gauzak aldatzen joan ziren eta egun, izokina bezalako arrainak ikus daitezke Urumean. Fagollagako bezalako uharkak oztopo handia dira arrainentzako, hau dela eta, arrainak presa zeharkatzeko "eskala" izenekoak eraikitzen dira hauetan.


Río Urumea y presa de Fagollaga. En la medida en que hacia 1940 comienzan los asentamientos de las industrias en la ribera del río Urumea y con ello los residuos generados por ellas son vertidos en su cauce, la calidad de sus aguas se degrada tanto que podía decirse que éstas no albergaban forma de vida. Sin embargo, a partir de 1970, con la aparición de las depuradoras, la situación mejoró sensiblemente. Hoy en día la calidad de las aguas nos permite ver ejemplares de salmón. Para ésta especie la presencia de presas en el río constituye un serio obstáculo en su viaje de subida del río. Para minimizarlo, se construyen unas "escalas" adosadas por la que el salmón puede subir.



Nondik hasi Punto de partida

Hernani eta Goizueta herriak lotzen dituen GI-3410 errepedearen 5,6 kilometroan Ereñotzu dago eta ibilbideak hementxe du hasiera.

El recorrido parte desde Ereñotzu, situado en el kilómetro 5,6 de la carretera GI-3410 que une Hernani con el pueblo navarro de Goizueta.



Ibilbidearen deskribapen zehatza Descripción del recorrido

Ereñotzu Ereñotzu
0km
0h 00m
GPS UTM ED50 30T X=586147 Y=4788460

Ibilbideari Ereñotzuko parrokian emango diogu hasiera eta honen eskuinetik, aldapa gora egiten duen bidea hartuko dugu. Segituan, eskola publikoa ezkerrean utziko dugu. Honen ostean, bideak eskuinera egingo du eta pixka bat aurrerago, gure ezkerrean ur-biltegi bat utziaz, bidegurutze batera iritsiko gara.

Iniciamos el recorrido desde la parroquia de Ereñotzu tomando la carretera que, por su derecha, asciende la ladera. Enseguida dejamos a nuestra izquierda el colegio público. Detrás de ella, la carretera gira hacia la derecha y un poco más adelante, tras rebasar a nuestra izquierda un depósito de agua, llegamos a una bifurcación.

Desbideraketa Bifurcación
0.2km
0h 08m
GPS UTM ED50 30T X=586340 Y=4788524

Orain arte jarraitu dugun asfaltozko bideak eskuinera egiten du, baina guk ezkerreko pista hartuko dugu. Pista hau hegazti-ustiategi baten albotik pasatzen da eta malda gora jarraitzen du baserri batera iritsi arte. Hemendik aurrera, ibilgailuek ezingo dute pista hau erabili: estutu egiten da, harrizkoa da hasieran eta belarrezkoa ondoren. Berehala, metalezko txabola baten ondoan, basoan sartuko gara egoera txarrean dagoen ataka bat zeharkatuz. Honen ostean, bideak baso itzaltsua zeharkatzen du eta minutu gutxian, sagarrondo osaturiko argigune batera iristen da.

Aldapa gora jarraituko dugu bide ez oso argi batetik, basoa gure ezkerrean eta sagarrondoak eskuinera ditugularik. Metro gutxira Larregain sagardotegiaren azpialdean dagoen pista helduko gara. Pista hau hartuaz, eskuinetik, 100 bat metrora, beste hainbat ibilbidek topo egiten duten bidegurutze batera iritsiko gara.

La pista asfaltada que seguimos hasta ahora gira hacia la derecha pero nosotros tomaremos la pista de la izquierda que pasando junto a una explotación avícola prosigue el ascenso hasta llegar a un caserío. Desde él la pista deja de ser transitable a vehículos: se estrecha, es de piedras al principio y más adelante de hierba. Pronto, junto a una txabola metálica, nos adentraremos en un bosque atravesando una langa en mal estado. Tras ella el sendero atraviesa el bosque sombrío y en pocos minutos saldremos a un claro en el cual hay unos manzanos. Seguimos el ascenso por un sendero poco marcado dejando a nuestra izquierda el bosque y el manzano a nuestra derecha. A pocos metros llegamos a una pista a los pies de la sidrería Larregain. Tomando esta pista por la derecha, a escasos 100 metros llegamos a un cruce, punto de encuentro de otros muchos senderos.

Larregain Larregain
1.0km
0h 25m
GPS UTM ED50 30T X=586222 Y=4789170

Bidegurutzea gure ibilbideko punturik altuena izango da. Orain, pixkanaka, altueran jaisten joango gara. Honetarako, bide asfaltatua hartuko dugu, ezkerrean aldapa behera Fagollaga aldera doan bidea, alegia. Larregaingo bidegurutzetik 10 bat minutura, poste elektriko baten alboan poste balizatua aurkituko dugu.

Llegados al cruce, punto más alto de nuestro recorrido, es hora de ir perdiendo altura tomando para ello la carretera asfaltada que desde aquí, por la izquierda va descendiendo hacia Fagollaga. Prestaremos atención ya que a unos 10 minutos desde el cruce de Larregain encontremos junto a un poste eléctrico un poste balizado.

Poste elektriko Postelétrico

2,0km
0h 35m
GPS UTM ED50 30T X=585991 Y=4789380

Poste elektriko baten alboan, bidea eskuinera, aldapan behera uzteko adieraziko diguten poste balizatuak aurkituko ditugun arren, guk ez diegu kasurik egingo eta bide asfaltatutik jarraituko dugu, beherago nahiko bortizki eskuinera bira egiteko. Hemendik, dagoeneko, Fagollagako baserrien teiltuak ikusiko ditugu, bailararen sakonean, errekararen aldamean. Segituan, jarraitzen dugun asfaltozko bideak kamio nagusiarekin bat egin baino 100 metro lehenago, adi egon beharko dugu, izan ere, sagarrondo eta baratza bat igaro ostean bidea utzi beharko baitugu, ezkerrean ateratzen den bidezidorra hartzeko. Honek, aldapa behera, Fagollagako etxean atzealdean dagoen jatetxearen aparkalekuan utziko gaitu. Bidea gurutzatuaz, Fagollagako zubi ederrera iritsiko gara.

Este poste parece invitarnos a abandonar la carretera para descender por un sendero que sale por la derecha, pero haciendo caso omiso de ello, proseguimos el descenso por la carretera que, un poco más adelante gira fuertemente hacia la derecha. Divisamos ya desde aquí los tejados de los caseríos de Fagollaga al fondo del valle, junto al río. En breve, 100 metros antes de que la carretera que seguimos desemboque en la carretera general, estaremos atentos para, justo una vez rebasado un manzano y una huerta, abandonar la carretera, tomando un sendero que sale por la izquierda a modo de atajo y que desciende directamente a la parte de atrás de las casas de Fagollaga, para acabar en el parking del restaurante. Cruzando la carretera nos situamos en el bonito puente de Fagollaga.

Fagollagako zubia Puente de Fagollaga

2,6km
0h 40m
GPS UTM ED50 30T X=585733 Y=4789151

Hemen, Ereñotzurako bueltako bidea hasiko dugu. Horretarako, zubia zeharkatuko dugu, Urumea ibaiaren gainetik pasaz. Zubiaren alde honetan bidegurutze batekin egingo dugu topo. Guk ezkerretik Urumea ibaiari paralelo doan pista hartu behar dugu, presa batera iritsi arte. Hemendik, pista bera jarraituz, galtzeko aukerarik eta apenas esfortzurik egin gabe, Ereñotzu auzo inguruko errepedera iritsiko gara, Urumea ibaiaren pasagune estu baten gainetik zeharkatu ostean. Bide honetatik jarraituko dugu eskuinera, auzo aldera, 100 bat metrora berriro ere abiapuntura iristeko.

Iniciamos el retorno a Ereñotzu. Para ello cruzamos el puente para atravesar el río Urumea. En la otra margen hay una bifurcación: por la derecha iríamos hacia Hernani. Nosotros debemos tomar la pista de la izquierda que discurre paralela al río hasta llegar a una presa. Desde aquí, siguiendo la misma pista, sin pérdida y sin apenas esfuerzo llegaremos a las proximidades de Ereñotzu en la que una estrecha pasarela cruza el río para dejarnos junto a la carretera. Seguimos por ésta hacia la derecha y a escasos 100 metros llegamos al punto de partida.



4,1km
0h 15m
GPS UTM ED50 30T X=586147 Y=4788460

Ereñotzu
Ereñotzu